

## GOBERNU BATZARRA

2014. 03. 07

<b>Alkatea:</b>	<b>Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko martxoaren zazpian, goizeko 10:00etan</b>
<b>Ibai Iriarte San Vicente</b>	<b>Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.</b>
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Asier de los Rios Soraluze</b>	
<b>Iñaki Xabier Irazabalbeitia</b>	<b>1.- Aurreko akta onartzea.</b>
<b>Fernandez.</b>	<b>2.-Gurutze Gorriari dirulaguntza.</b>
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	<b>3.- Oporrak bakean programa. 2014. urterako proposamena.</b>
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	<b>4.- Tolosa &amp;Co. 2014. ekarpena.</b>
<b>Paulino Alonso Eraso.</b>	<b>5.- 4/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.</b>

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko otsailaren 28an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.-Gurutze Gorriari dirulaguntza.**

Gurutze Gorriak dirulaguntza eskatu dio Udalari Tolosako Madalen kalean egin dituen obrak finantzatu ahal izateko, non zentro berria antolatu duen.

Gurutze Gorriko eskualdeko Asanbladak Tolosako Madalen kalean egoitza soziala du eta Gizarte intereseko entitatea da, gizarte zerbitzuetako teknikariak adierazten duen moduan bere informean.

Aipatutako lokalak eta etxebizitzak, non ematen dituzten zerbitzu sozio sanitarioak, Tolosako Udalarenak dira, eta Gurutze Gorriari eta Gipuzkoako Aldundiari, hitzarmenen bidez, utzita daude.

Ikusita, 2013. urtean emandako baliabideak eta zerbitzuak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Tolosako Gurutze Gorriari 23.371.43 €-ko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Tolosako Gurutze Gorriari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

### **3.- Oporrak bakean programa. 2014. urterako proposamena.**

Otsailaren 6an, eskualdeko udalei proposamen desberdinak egin zitzaizkien zonaldeko "Oporrak Bakean" programaren kudeaketari eta gastuaren ordainketari buruz, eta erabaki zuten orain arte egin den bezala egitea, hau da, herri bakoitzak hartutako ume kopuruaren arabera.

Tolosa: harrera ematea gehienez 10 umeri: gastua, 1.802,31€ ume bakoitzeko.

Harrera familiak lortzeko arazorik izango balitz, umeak Tolosako aterpetxean hartzeko proposamena ere egin da.

Den den, kontuhartzaileak adierazitakoaren arabera, ez dago nahiko konsignaziorik gastu guztia onartzeko, baina bai bidai gastuak onartzeko, guztira 6.850€.

Hortaz, aipatutakoa kontuan izanik eta Gizarte Politikak eta Osasun Batzordeak egindako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Tolosako Udalak, aurten ere, 10 Sahara umeren bidaiak finantzatzea, guztira 6.850€. (685€/ume bakoitzeko).

**BIGARRENA**.- Lehentasuneko irizpideak onartzea 10 Sahara haur horien harrera egin ahal izateko:

**2.1.** Umeek hartzen dituzten familiak Tolosan bizi eta erroldatuta egotea.

**2.2.** Tolosan familia hartzaileak 10 baino gutxiago badira, Tolosaldean bizi eta erroldatuta egotea, baldin eta zonaldeko beste udalek ez badute finantzatzen.

**2.3.** "Maiatzak 20, saharar herriaren aldeko" elkarteak egindako eskaerari erantzuna emanez, Tolosaldean familia hartzaileak 10 baino gutxiago badira, aterpetxean hartzen diren gainontzeko umeen bidaiaren kostua finantzatzea.

**HIRUGARRENA.**- Proiektua aurrera eramateko behar diren pertsonen kontratazioa egitea:

**3.1.** Koordinatzailea: Ana Trapero, 3 hilabetetarako, lanegun osoz.

Begiralearen kontratazioa: Lanbideren bitartez egitea, lanegun osoz, bi hilabetetarako eta hurrengo baldintza hauek kontuan harturik; esperientzia, gaztelera eta hasania menderatzea, eta euskara erabiltzeko gaitasuna.

**LAUGARRENA.**- Programaren informazioa zabaltzea udal komunikazio-zerbitzuaren bidez (Tolosako herrian Gizar berriren bitartez eta Tolosaldean prentsaren bidez).

**BOSTGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea interesatuei, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Politikak eta Osasun departamentuari.

#### **4.- Tolosa &Co. 2014. ekarpena.**

Bi mila eta hamabiko apirilaren 2an, lankidetzako hitzarmen bat sinatu zen merkatariekartearen eta Tolosako Udalaren artean, Tolosako jarduera ekonomiko-komertziala hobetzeko eta sustatzeko asmoz. Beste erabaki batzuen artean, Udalak onartu zuen urtero 18.500 eurorainoko kopuru bat ematea. Kopuru hori, ordea, egunera daiteke KPI eta testuinguru ekonomikoa oinarri harturik.

Bestalde, bi mila eta hamalauko urtarrilaren 28an, **Tolosa&Co** elkarteak bere urteroko batzarra egin zuen eta bertan erabaki zuten, batetik, lehendakari berriaren eta zuzendari berriaren izendapena eta, bestetik, 2013 urteko jarduera-memoria eta 2014ko aurrekontua.

Tolosako Udalak laguntzen duela adierazi behar duela idatziz **Tolosa&Co** elkarteak lagundutako jardueri dagozkien euskarri, kartel eta seinale guztietan, baldin eta jarduera horiek zabaldu, hedatu edo, hala denean, publizitatu behar badira.

Hortaz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **Tolosa&Co** merkataritza elkarteari **21.500 €**ko ekarpena egitea aurretik aipatutako hitzarmenaren ildotik, baldintza honekin:

***Tolosako Udalak laguntzen duela adierazi behar duela idatziz Tolosa&Co elkarteak lagundutako jardueri dagozkien euskarri, kartel eta seinale guztietan, baldin eta jarduera horiek zabaldu, hedatu edo, hala denean, publizitatu behar badira.***

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Tolosa&Co elkarteari eta Kontuhartzaitzari.

**5.- 4/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **4/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **19.549,69€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- **4/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**